

Zer Berrri San Andresko Jalak datorren asteburuan
Kale Kantalian Jose Antonio Gili elkarrizketa

pppillean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
114. alea, 2005ko
ekainaren 24an



**Farmazia
itxitakoan**

zer...  ?





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak

Orduetgia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022





IÑAKI ALBERDI GONZALEZ

Eskerrik asko Jose Antonio Gil eta abarri

Gogoratzen dut, pil-pileaneko ale baten-lehiaketa sailean- galdera hau agertzen zela: "Soraluzeko zein pertsonairi egingo zenioke *elkarrizketa bat?*" Dagoeneko asko izan dira elkarrizketatuak gure aldizkarian, denak interes handikoak, baina nik pertsonai baten falta sentitzen dut, eta hori Jose Antonio Gil da. Zuetako askok zergatik esaten dudan hau galdetuko diozue zuen buruei; datozen lerroetan nire gogoetaren berri eman nahi nizuke.

Denok dugu gustoko herri mailan denetarik egotea, baina dakigun bezala, pertsonen borondatea eta lana ezinbestekoak izaten dira holakoetan. Eskatu, denok eskatzen dugu, baina eman? Denok egoten al gara prest ematerako orduan? Pertsona horiek egiten duten lana, askotan, beraien bete behar bat bezala ikusten dugu eta herritar maiteok, hau ez da horrela, konturatu gaitetzen, ia gehienek borondatezko lan bat betetzen dutela eta errekonozitu dezagun hauen lana, ez baitute inolako beharrik hauek antolatzen ibiltzeko.

Zer gertatzen zaigu gehienetan? Oso sinplea da: gaizki ohituta gaudela, errezuzten dugula ekintza guztien antolaketa gutxi batzuen bizkarrean, eta nola beti antolatzen dituzten, gizakiaren alde berekoiena azaltzen da eta pentsatzen dugu euren betebeharra dela, eta hau ez da horrela, ezta gutxiago ere (amak beti bazkaria prestatzen digulako, ez dugu pentsatu behar bere betebeharra denik, noizean behin esan dezakegu, "ama, gaur bazkaria nere kontu", eta noizean behin baino gehiagotan baldin bada, are eta hobeto eta inoiz ahaztu behar ez duguna: amak bazkari hori prestatzen ipini duen maitasuna MIRESTEA eta BALORATZEA). Bukatzeko, artikulua izenburuari helduz, Jose Antonio Gilen izena aipatuko dut. Ziur nago Jose Antonio bezala pertsona asko dagoela, baina nik Jose Antonio aukeratu dut, alde batetik nire inguru hurbilean daukadalako eta beste alde batetik, urte askotan makina bat ekintza desberdin antolatzen aritu bada ere, EUSKARAREKIN erlazioatuta dauden ekintzen antolaketetan askotan ITZALEAN parte hartu izan duelako, eta horren adibide: Korrikako herri bazkaria, sagardo eguneko salda eta txorizoa, kantu afariko afaria (140 lagunentzat), barnetegiko informazioaren bermatzea.... etabar. Horregatik, lerro hauetatik nire errekonozimendua Jose Antoniori euskararekin zerikusirik duten ekintzak eta beste ekintza batzuk prestatzen aritu izanagatik. Eta Pil-pileanekoeri: ea noizko elkarrizketa hau Jose Antoniori! Zorionak ere Pil-pileanekoei egiten duzuen lanagatik. Bejondeizuela!!

Telegrapak

Biba zuek!. Stop ze bizigiro. Stop bizipen txarrak San Juan sutan erre eta gero?. Stop gu, konturatu gara... Stop farmazietatik kanpora herrixan ez daguala kondoirik. Stop ez dogu esango konturatu zan pribilegiatuaren izenik. Stop baina ze tristia. Stop kexa bakarra jasotzia!. Stop itxuraz masa kritikiko txikixa dago. Stop jo, jo!. Stop arazuak oso jente gutxiri eragiten dotsala alegia. Stop ji, ji!. Stop serio berba egin da ez dago eskubiderik. Stop kondoiak ordutegi zehatz baten eta daren prezian egoteko!. Stop eta harritzekuen da inork ez dabela ezer esaten!. Stop arrain pástell!. Stop berri pozgarrixagua izan da ETAREN adierazpena. Stop herrixan be eragingo dabena. Stop zinegotzi, pertsona eta familia askoren lasaigarri. Stop pauso bat da. Stop SEGiko neska mutilak proba barik kaleratzia baino haundixagua. Stop ia pausoz pauso zeozer aurreratzen dogun. Stop bada ordua!. Stop Ezoziko jaixak bai egin dabela aurrera. Stop igarri da bai idixen tirakadia. Stop eta San Andres betiko moduan, toparen topian!. Stop zineman ikusiko dogu elkar. Stop ui! ez, barkatu, Plaza Zaharrian. Stop izarren azpitan. Stop euririk ez bada!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Altor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
L.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



Erreportaia

"Aurreko asteburuan erredakzioko batek lige serio bat euki zuen. Zoritzarrez, farmazia itxita zegoen eta ezin izan zuen preserbatiborik erosi, Soraluzen ez baitago beste inun kondoirik salgai. Zer dela eta ez daukagu herrian edozein egun eta ordutan kondoi bat erosteko aukerarik?"

Zorion agurrak



Jennifer Rubio

Ekainaren 21ean

Zorionak pitufa !

Etxekuen eta Boliako nesken partetik.



Leo Zarobe

Ekainaren 29an 14 urte

Zorionak txapeldun!

Etxeko guztien partez



Iñigo Mendia

Uztailaren 2an ezkonduko da

Nafarroako Errege!

Zain beza ongi Amañako erregeña, Osasunazaleen partez.



Markel Gil Irati Larreategi

Ekainaren 22an, 5 urte
Uztailaren 2an, 5 urte

Zorionak bixori !! *Etxekuen partez*

Ajenda

Puzgarriak eta tailerrak

Ekainaren 26an

Kiroldegian

Atxolin guraso elkarteak antolatuta.

Danborradan izena emateko:

Ekainaren 28an eta

30ean, 19:00etatik

19:30etara Frontoian.

Entsaiok; ekainaren 30ean eta uztailaren 5,7,12,14,19, eta 21ean. 19:30etan Frontoian.

Antzerkia

Ekainaren 30ean

17:00etan

Estazioko parkean

Gaztetxoek antolatuta

Kartel Lehiaketa

Sari banaketa uztailaren 1ean egingoda 19:00etan

Kiroldegian.

Eskeerrona

Antolatzaile eta kapitainen partez, eskerrak jokalariei, laguntzaile eta partidua ikustera etorri zirenen guztiei. Indio.

Gutunak

BAZENEKIEN AHTA:

1.- EZ DELA OHIKO TRENA. Trenaren itxura du, baina hegazkinarekin dago lehian (distantzian, geldialdietan, energia gastuetan); izan ere, lurretik doan hegazkina da. Honekin bukatzen da tren-garraioa, zerbitzu publikoa den kontzeptua.

2.- ELITISTA DELA. Euskal Herrian aurreikusten den gutxi gorabeherako 9 000 milioi euroko inbertsioarekin, populazio osoarentzako kalitatezko garraio publikoa finantzatu eta beste gizarte eskaera asko erantzun daitezkeenean.

3.- INGURUGIRO ERAGINA JASANEZINA DELA. Gure herriko azpiegitura guztietatik eraginik gogor eta erasotzaileena litzateke: barrera efektua, zarata eta paisaiari eraso ikaragarria, lurren okupazioa, desregularizazio hidrokologoa... Euskal Y bezalako makroproiektu bat, nafar korredorearekin batera, halako azalera txiki eta menditsuan, ez da Europako beste inongo herritan planteatzen.

4.- EZ DUELA BATZEN, BANANDU BAIZIK. AHTak urrunekoa gerturatu baina gertukoa urruntzen du. Azkarrago burutuko dute Madrildik Parisako bidea, baina bidean zeharkatutako herriak txikituko ditu inolako onura gabe, kalte larriak eraginez, batez ere nekazaritzan..

5.-EZ DITUELA GARRAIO ARAZOAK KONPONTZEN. Autopista, superpor-tu, plataforma logistikoak eta abar luze bat biltzen dituen azpiegitura plan erraldoi baten parte da. Non garraioaren hazkundera bultzatzen da negozio bezala Euskal Herriaren kaltetan. Horregatik, praktikan, ez du kamioi bakar bat kenduko bideetatik. AHT GELDITU! INPOSAKETARIK EZ! HERRIARI ENTZUN!

AHT Gelditu Elkarlana.



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

bekak eta ikastaroak

Jose Antonio Loidi Ikerketa Beka. 2005

Irungo Udala. 12 hilabete. 9.000 euro. Ikerketa-arloak: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Proiektua, ikerketa-lana eta memoria euskaraz egingo dira. Ikerketa-lana originala eta argitaratu gabea izango da. 2005eko irailaren 5etik 23ra.

Telefonoa: 943 649250
euskara@irun.org

Hizkuntza plangintza ikastaroa.

Hiznet. Internet bidezko graduondokoa. 250 orduko ikastaroa. EHU, Asmoz Fundazioa eta Jauriaritzako Kultura Sailak antolatuta.

Telefonoa 945233420
hiznet@asmoz.org

HERRIKO IRAGARKIAK

Duplexa salgai Sorluzen

Orain bi urte eraikitakoa (*Errekalde kalean*). 120 m2 ditu; 4 gela, 3 komun konpleto, sukalde zabal eta hornitua, egongela-jangela, trasteroa eta terraza. Prezioa: 37.500.000. Harremanetarako 661345984-ra deitu.

Sukaldaria behar da

Sukaldaria behar da Pil-pilean eta

Elgoibarko Izarrak antolatutako

Udalekuetarako. Askixu (Getaria).

Uztailaren 1etik 16ra.

hildakoak

JOSE MARI UNAMUNO EGUREN

FRANCISCO ZABALETA MANTXOLA

Mendata taberna



Berezitasunak:
Txipirotiak, Barazki Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Zer irizten dotsazu?

Aurreko belaunaldietan sexua gai tabua izan da gure gizartean. Badirudi poliki-poliki gauzak aldatzen ari direla, onerako. Kalera jo dugu gazteen eta helduen artean jaso duten heziketa sexualaren gainean batzuek eta bestek duten eritzia ezagutzeko.

Jaso dozu heziketa sexualik?


Gaur egungoa zelakua da?



Carmen Llanes

74 urte etxeandria

Guk ez dou ezebe ikasi eskolan, dana lagunen artian ikasi dou. Gaur egungo gaztiak asko dakixe, eta hori ondo dao, jakitzia ona da. Gure denboretatik hona asko aldatu da, oin libertade larregi dao.



Eneko Arizaga

13 urte ikaslia

Eskolan ez doskue erakutsi ezer, eta hori erakutsi ein bihako litzake gehixau. Drogen informaziñua emon doskue eta sexuana ez. Gauzak aldatu ein diala pensatzeten dot, hobera aldatu da.



Koldo Kareaga

49 urte langilia

Neri ez doste erakutsi, baina gaur egunian erakusten da eta eskolatik aparte gizarteratuak dare sexu kontuak. Telebistan eta komunikabidietan naturaltasunez azaltzen dia, eta hau ona da, ahal dan eta gehixen zabaldu bihar da.



Neli Plata

41 urte etxeandria

Nik ez dot sekula jaso ikasketetan, hori kalian jasotzen zan. Lagun artian eta gero esperientziakin. Gaur egunian etxian saiatzen gara informatzeten, baina ez da erreza, dana dakixela esaten dabe baina ez da erreza, nahiz eta etxian askatasun danakin berba eiten doun.



Goretí Goyogana

15 urte ikaslia

Eskolan erakutsi doskue, klase berezi batzuk jaso dittugu. Asko ikasten da, eta gero medikuan rebiziñora juaten garanian be informaziñua emoten doskue panfleto batzuetan. Hau dana ondo dao eta biharrezkua ikusten dot.



Julio Odriozola

75 urte jubilatua

Ez dot nik jaso eskolan ezebe. Len dana pekatua zan, horrek kontuok gaur egunguak dia. Guk lengo kontuekin jarraitzen dou eta gaur egungueri eren erara laga ein bihar jakue, nahiz eta gauza batzutan ez garen ados.

ARMENDIA
JATETXEA

Ezozí Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

KM
Design

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillage, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

ETAk ez du PPko eta PSOEko hautetsien aurka ekintza armaturik burutuko

Ekainean prentsari igorritako agiri batean, ETAk PPko eta PSOEko hautetsien kontra atentaturik ez duela egingo adierazi du. «Gatazkari konponbide politiko eta demokratikoa» emateko egiten ari diren ahaleginean kokatu du erabaki hori erakunde armatuak. Aurrerantzean, "ETAk azken hilabete hauetan erakutsi duen borondateari erantzun positiboa ematea Espainia eta Frantziako agintariei dagokie»-la gaineratu du komunikatuan. ETAk bake agertokia eraikitze borondatea berretsi duela adierazi dute Batasunak eta LABek.

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak, berriz, erakunde armatuak egin behar duena armak uztea dela adierazi dute. Espainiako gobernuak, momentuz, ez du PP-ko eta PSE-ko hautetsien gaineko segurtasun neurririk kenduko.

Ikastaro berriak KZgunean

Soraluzeko Kzgunean ikastaro berriak izango dira datozen asteetan, Uztailaren 19tik 28ra bitartean. Ikastaroak 14:00etatik 16:00etara izango dira eta langileei zuzenduta egongo dira batez ere. Informazio gehiago Kzgunean edo Udalean jaso daiteke.

Ipuin Lehiaketan sarituak



2005. urteko ipuin lehiaketako sariak joan den ekainaren 16an banatu ziren. Hauek izan dira aurtengo ipuin sarituak: A mailan, "Hiru umeak eta altxorra" (Maite Garmendia), "Grapak eta grapagailua" (Angel García) eta Ness Lakuko dragoia "Ander Gomez"; B mailan, "Manta Magikoa" (Elene Oregi), "Neska afrikarra" (Uxue Gallastegi) eta "Aberatsaren eskarmentua" (Jokin Parra); D mailan: "Eta orain nire txanda" (Katia Gustavo), "Itxurak ez du axola" (Ane Osoro) eta "Homosexuala naiz eta zer?" (Marta Ayora); E mailan, "Hezea, baina hotza" (Maite Quintanilla), "Ezin dot gehixao" (Nerea Inurrieta) eta "Berdintasuna" (Aritz Arizaga).

Kurtso amaiera EPAn



Azken urteetan bezala, Soraluzeko EPAk 2004-2005 ikasturtea eskulan tailarrekin bukatu du. Tailerrak ekainaren 6tik 22ra egin dira eta ardura-dunek bertan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete, oporren ostean berriro zentrorra hurbiltzeko gonbitea luzatuz.

Zinea Plaza Zaharrean



Soraluzeko Udaleko Kultura Batzordeak Zinea Kalean egitasmoa jarriko du martxan beste urte batez. Datozen ostiral-larunbatetan 6 pelikula eskeiniko dituzte Plaza Zaharrean, denak 22:30 etatik aurrera. Argazkian, ekainak 25ean emango duten pelikularen argazkia: Los chicos del coro.



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Triki ta keren kontzertua San Andresko Jaietan

Aurten ere uztailaren bigarren asteburuan egingo dira San Andresko jaiak. Azken urteotan bezela, egitarau erakargarria prestatu dute auzotarrek. Zapatu gaueko erromeria izango da ekitaldi nagusia, tartean, berrikuntza moduan, DJ Bullen emanaldia ere izango da, goizalderarte euskal musikaz giroa berotu duena. Hurrengo egunetako nobedade nagusia, dudarik gabe, Epelde eta Larrañaga trikitilari ezagunen saioa izango da. Hona hemen egitarau osoa:



EGITARAU

UZTAILAK 9 ZAPATUA

21etan afaria TRIKI TA KE - DJ BULL

UZTAILAK 10 DOMEKIA

12:30etan Meza

Pelota partiduak

Atxotegi-Jauregi / Loiola-Zabala

Soraluzeko Dantzarien saioa

Bertsolariak

J.Zelaieta - I. Barberena

Trikitixa Unai eta Enaitz

Bazkaria elkartean

18:00etan Herri Kirolak

(Goenatxo eta Elusu-Korta harrijasotzen / Biorri eta Mugertza aizkoran)

Zezentxoak eta Poniak

Bertsolariak

Bola Txapelketa

Sariak : 100, 50, 25, ustegabea.

Erromeria Unai eta Enaitz

UZTAILAK 11 ASTELEHENA

12:30etan Meza

Haurrentzat jolasak

Trikitilariak EPELDE ETA LARRAÑAGA

Bertsolariak Lizaso eta Egaña

Auzotarren bazkaria

19:00etan Emakumeentzat bola jokua

Gauean Erromeria KUPELA taldearekin

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ
KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Sexualitatea, heziketa afektiboa eta prebentzioa

Aurreko asteburuan erredakzioko batek ligo serio bat euki zuen. Zoritzarrez, farmazia itxita zegoen eta ezin izan zuen preserbatiborik erosi, Soraluze ez baitago beste inon kondoirik salgai. Honek gogoetara ekarri gintuen: Zer dela eta ez daukagu herrian edozein egun eta ordutan kondoi bat erosteko aukerarik? Zer aurreritzi eta heziketa sexual jaso dugu gure osasuna zaindu ahal izateko hain garrantzitsua den zerbait eskura ez baldin badaukagu? Herriko ikastetxeetara, farmaziara eta sexologo baten kontsultara jo dugu gai zabal hauen inguruan duten iritzia ezagutzeko asmoz.

Plaentxi herri ikastetxean ez da jarraitzen sexualitatea lantzeko programa berezirik. Sexualitateaz testu liburuetan datorrena irakasten dela adierazi digute zentroko arduradunek. Irakasleen esku dago gero gai horrek garatzea, ipuinen eta antzerako lantxoek bitartez. Irakaskuntza guztian oso gutxi landu den gaia da sexualitatearena.

Institutuan, alde batetik, testu liburuetan datorrena irakasten da, ugalketa aparatuen deskribapena eta funtzionamentua 1go eta 2. mailatan. Honen osagarri, sexu heziketa tailerrak egiten dituzte 2. eta 4. mailan, bakoitza astebetekoa. Aurtengoa hirugarren urtea izango da eta aipatu tailerretan honako helburuak landu dituzte:

- Sexua, sexualitatea eta praktika sexuala kontzeptuak argitzea.
- Naturaltasuna
- Hiztegi erotikoa erabiltzea
- Bakoitzaren bizi esperientzietan hausnartzea
- Hezkidetzatza
- Gure gorputzaren ezagutza bultzatzea
- Sexualitatea, afektuak eta emozioak adieraztea
- Gorputz ereduak era kritiko batean lantzea
- Kontaktua denok agertzen dugun behar bat bezala aurkeztea
- Sexualitatearen inguruko mitoak puskatzea
- Homosexualitatearen gaia jorratzea
- Antisorkuntza eta Hiesaren inguruko informazioa zabaldu



PRESERBATIBOAK, ANTISORGAILUAK, ETA HURRENGO EGUNEKO PILDORAK

"Gazteak asko lasaitu dira prebentzio kontuetan"

Zabaleta Farmazian adierazi digutenez, gazte jentea gehien beldurtzen duena haurdun geratzea da eta ez hainbeste *sifilis*, *herpes* edo *IHESA* bezalako gaixotasunak harrapatzea. Zentzu horretan, azken urteeetan gazteak asko lasaitu direla jakinarazi digute. Prebentzio neurri bila bi bezero mota etortzen zaizkie farmaziara: bikote egonkorra dutenak eta noizbehinkako harreman sexualak dituztenak. Harreman egonkorrak dituztenak *antisorgailuak* erostera etortzen dira. Ginekologoak emakume bakoitzari komeni zaiona errezetatzen dio. Noizbehinkako *sexu harremanak* dituztenak *kondoi* bila joaten dira. 12ko kaxak (6eurotan) eta 3ko kaxak (1,2 eurotan) daude salgai. Erosle gehienak emakumezkoak dira, gazteak eta amak. Gizonezkoak ez omen dira kontu hauekin larregi arduratzen; potro haundiak edo potro zimurrak direlako agian.

Hurrengo eguneko pildora: gero eta gehiago erabiltzen da. Pildora honek hilekoa probokatu eta haurdunaldia galeratzen du. Asteburuetan eta Uda aldeko jaietan gertatzen da batez ere, normalean *sexu praktikatzan* neurririk ez hartzearen.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

TXOKO KAFETEGIA

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

Arantza Alvarez sexologoari elkarrizketa

Eibarren dauka kontsulta, Untzaga plazako 11. zenbakian . Luze eta zabal hitzegin dugu sexualitateaz berarekin, guraso, gazte eta ez hain gazteentzat baliagarria izango delakoan.

Nola defini daiteke heziketa sexuala?

Heziketa afektibo-sexualaz hitzegin behar genuke, ez sexualaz bakarrik, helburua bikoitza baita: alde batetik jentea harreman sexual atseginak eta osasungarriak eukitzeko prestatzea eta bestetik euren bizitza afektiboan (*sentimentuak, emozioak, giza harremanak...*) laguntzea.

Aldatu al da heziketa afektibo-sexuala azken urteetan?

Aldatzen ari da, poliki-poliki. Eskoletan, esaterako, orain taillerak egiten dituzte eta hori garrantzitsua da, baina ez da nahikoa. Egun batzutan informazioz bonbardeatzen dituzte neska-mutilak. Hobe litzateke zerbait iraunkorragoa, garrantzitsuena jarrerak eta jokaerak aldatzea baita. Etxeetan orain lehen baino gehiago hitzegiten da gai haueri buruz, baina oraindik gurasoek beldur haundiak dituzte gai batzuei heltzeko.

Zer gomendatuko zenieke heziketa sexualik jaso ez duten gurasoei (euren semeak hezitzerako orduan)?

Lasaitasuna eta naturalitatea. Gurasoak seme-alaben galderen beldur dira, erantzun aproposa emateko gauza izango ez diren beldur. Onena da lasai eta natural erantzutea: *"goazen alkarrekin (gurasoa seme edo alabarekin)*

Askotan beldurra izaten dugu bikoteari behar beste atsegin emango ote diogun eta hori pentsatzea errore bat da

erantzuna bilatzera, bila dezagun libururen baten edo interneten", beste edozein gai izango balitz bezala. Baina normalean seme-



Arantza Alvarez sexologoa eibarko Untzaga Plazan daukan bulegoan

alaben galderak beste era batekoak izango dira, afektibitatearen arlokoak. *"Nola esan pertsona bati gustoko duzula, bikoteak uzten zaitunean zer egin..."*. Seme-alabentzat garrantzitsuena gurasoak beti hor daudela jakitea da, behar dituzten aldi guztietarako. Horregatik, seme-alaben galdera guztiei erantzun behar zaie, txiki-txikitatik, erantzunak euren adinera egokituz.

Non dago afektibitatea eta sexualitatearen arteko muga?

Sexualitatea dena da. Gizon eta emakumeak gizaki sexualak gara eta elkarrekin gizaki sexual bezala erlazionatzen gara. Sexuan afektoa dago, noizean behingo harremana bada ere, baina afektuan ez da sexurik egon beharrik. Sexuaren eta afektuaren artean dagoen aldea da lehenengoan deseo eta erakarpena gertatzen direla.

Euskal Herrian sexu gutxi praktikatzan dela esaten da. Egia da hori? Zein faktorek eragin dute hori?

Elizaren pixuak eragin du hori batez ere. Erlijioaren eraginez, gaizki ulertutako errespetua izan da. Norbait ez errespetatzea da norbait egin nahi ez duen zerbait egitera behartzea. Gure izakerak

Gizon eta emakumeak gizaki sexualak gara eta elkarrekin gizaki sexual bezala erlazionatzen gara

ere eraginik badu, hemen itxiagoak baikara. Oso kuadrilazaleak izateak ez du lagundu noizbehinkako harremanak eukitzerako orduan. Hala ere, gazteekin aldatzen ari da hau; irekiagoak dira.

Zeintzuk dira zure bezeroen bildurrik haundienak sexu arloan?

Askotan beldurra izaten dute bikoteari behar beste atsegin emango ote dioten. Hori pentsatzea errore bat da, nor bere plazerraren arduradun baita. Pentsamentu horietatik askatu eta plazeretara abandonatu behar gara.

ELKARRIZKETA

Kantu Afarixa



Nahikua kantu eta bertso izan zan aurtengo kantu afarixan.

Dantzari txikixak



Eguraldi edarrakin dantzari txikiz bete zan herrixa.

Ezoziko Jaixak



Egun bakarrekua izan arren, bi idi pareko jaixak izan dira aurtenguak.

Ezoziko Jaixak



Aurten mendixan fin ibili da gaztetxo kuadrilia.

Galipoteko Jaixa



Galipoteko jaixetan musikia izan zan protagonista.

Musika Eskola



Plaza Zaharra txiki geratu zan musika eskolaren kontzerturako.

Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



kutxa

gizarte ekintza

TXANTXARRA JAN

Elkar muxukatzia.

"Taberna baztarrian ikusi nittuan
bixak elkarri txantxarra jaten"

GAUZEZTANIO

Ezertarako balixo ez dabena.

"Gauzeztanio horrek zahatua zabalik
laga zeban eta ardau dana
galdu zan!"

ATERTU HADI!

Ixilik egoteko eskaeria.

"Atertu hadi eta etaraik tra-
gua!"

Eta asmatu zeuk
bihar dittuzun beste danak!



Mingain-bero esamolde lehiaketan parte hartu zutenak.

JOLASEAN

hizkuntzarekin

Horixe izan da 2005eko Euskal Jaietako helburuetako bat; hizkuntzarekin jolas egiten ikastea, euskarak alderdi informalean (*gazte hizkeran*) dituen gabeziak gainditzeko. Metodo horixe azpimarratu zuen Kike Amonarriz hizkuntzalari eta umoregile ezagunak Gaztetxean eman zuen hitzaldian; jolas egitea.

"Lehengoa bai euskara!"

"Oingo gaztiena ez da euskara!". Esaldi hori, gerra aurretik, gerra ostean eta gaur egun ere behin eta berriz entzuten omen da *"zaharrago"* direnen ahotik. Amonarrizen esanetan hizkuntzak aldatu egiten direla ulertu behar da eta gizarteko komunikazio sistemak aldatzearekin oraindik gehiago. Zorionez gaur egun, orain 20 urte baino gehiago egiten omen da euskaraz, *"ni gaztea nintzenean ez genuen akatsik egiten euskaraz... ez genuen egiten eta!"*.

"Euskañola eta Frantseseuskara datoz!"

Gazteen artean euskara gehiago egiten den arren, euskarak ez omen du oraindik hizkera informalik behar bezela garatu. Hegoaldean gazteleratik hartzen omen dira esamolde adierazkor gehienak (*"no fastidies!"*, *"que buena!"*...) eta iparraldean frantsesetik. Horrek euskarak geroz eta gehiago urruntzen ditu. *"Hor dago arazoa! Euskara kaletik desagertuarazi zen eta eten bat gertatu da kaleko euskararen transmisioan. Gainera, euskara hizkuntza minorizatua da gazteleraren eta frantsesaren ondoan eta horrek eragin zuzena du hizkuntzaren berri-zeko ahalmenean"*.

"Jolas eginez sortuko da euskarazko argota!"

Hala ere badago euskarak bere argot propioa sortzeko biderik eta hori sormena eta hizkuntzarekin jolas egiteko gogoia piztea omen da. Euskaraz gehien entzuten den aditza *"zuzendu"* da. Beti zuzentzen ari gara. *"Gazteleraz inori ez zaio okurritzen lagun artean "eso no se dice asi!" esaterik. Euskaraz sortu, asmatu, jolastu eta gozatu egin behar da, eta zuzendu eskolan eta lanean"*. Denok barruan daramagun sormen hori askatu eta euskararekin jolastea omen da bidea. Beraz, asmatu eta sortu lasai eta gozatu euskaraz!



Kike Amonarrizek Gaztetxean eskeini zuen hitzaldi jendetsua.



Eskolarteko pelota txapelketa

Ekainaren 18an jokatu zen eskolarteko pelota txapelketa. Kiroldegi-ko frontoian 50 pelotazale gazte aritu ziren lehian zein 16. tantora lehenago iritsi. Larunbateko txapelkun eta azpitxapelkunak agertzen dira argazkian.

Bestalde, Agustin Txurrukak pelota elkarteko delegaritza utzi du. Aurrerantzean arduradun berriak Joseba Exposito eta Koldo Heriz izango dira. Euren asmoa Soraluzen berriz ere pelota talde federatua osatzea izango da. Azken urteetan, kiroldegia itxi zutenetik, Soraluzeko pilotariak beste herri batzuk ordezkatzeko aritu dira. Hau aldatzeko, lan talde bat osatu beharko dela adierazi dute Exposito eta Herizek.



Aerobic erakustaldia larunbatean

Larunbat honetan kurtso bukaerako aerobic erakustaldea eskeiniko dute kiroldegiko frontoian. Arratsaldeko 19:30etatik aurrera Soraluzeko aerobic txiki, aerobic eta jubilatuen taldeak kurtsoan zear ikasitakoak plazaratuko dituzte.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Asier eta Iñakiren omenezko txapelketa

AZKEN PARTIDUETAKO EMAITZAK:

Pontxi - Txapel	
Ander Heriz "Zarpas" - "Tafi" Yabar	22 - 18
Ander Epelde - Tornos	22 - 9
Egoitz - Peska	22 - 12
Zigor "Orbe" - Zuhaitz Osto	22 - 12
Kiru I - Limoi	22 - 12
Erlei - Aitor Fernandez	22 - 19
"Antoinne" Calles- Unai "Mendotz"	22 - 19
Koldo Heriz - Kiru II	22 - 14
Mikel Arga - Xabier Arribi	22 - 14
Sako - Iñaki Arribi	22 - 14
Maikel - Ugaitz	22 - 14
Txitxan - Togano	22 - 13
Portu II - Portu III	22 - 13

Aitor Atxotegi

Itziarko 4terdiko txapelketan,

Atxotegi / Iribar	22 - 18
-------------------	---------

Deba Arroko txapelketan

Portu-Atxotegi	22 - 10
Elorza-garate(elgeta)	22 - 10

FUTBITO TXAPELKETA

Fronton T_Gamusinos	4 - 3
Los Cracks_Gare izen barik	6 - 1
Guri-guri_Babajana Sexy	5 - 2
Hola dok_Artifices	4 - 3
Supertorpedos_Ballesta T.	3 - 6

Mendi taldea

Uztailaren 2an eta 3an
Caesera irteera

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g Tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

AV aras S.A.L.

DIN arauak jarraituz eta
zehaztasun handiz egindako torniluak

Industrialdea 20-21 Tfnoa 943 75 17 36 - 75 18 03
50 Posta Kutxatila Faxe 943 75 22 95
20590 Soraluze

Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoaren frogak eta
argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Jose Antonio Gil

“Ez dot sekula monagillo trajerik jantzi”

Iñaki Alberdik enbidoa bota digu ale hontako kolaborazioan, Jose Antonio Gil elkarrizketatzeko eskatuz. Gusto haundiz eutsi diogu enbidoari, herriko seme ezagun honen bizitzaz gauza gehiago ezagutzeko asmoz.

Izena, Adina eta lanbidea...

Jose Antonio Gil, 39 urte eta tornerua

Zer zaletasun dakazu?

Ortuan lan egittia eta kalia txi-kiteuan ibiltzia.

Plazentziako ze leku gustatzen jatzu gehixen?

Karakate ingurua

Eta ze jai?

San Roke Txiki eguna. Jente gutxi ibiltzen da baiña girua apartekua izaten da.

Ze gustatzen jaku plazentziatarro-ri gehixen?

Saltsan egotia, juergan. Autuakin herri barruan ibiltzia bebai, eta hori kritika moduan diñot.

Zela prestatzen da 100 lagunendako bazkari bat?

Errezena da lehenengo ensalada haundi bat egittia; aparte, pikatzeko enbutido pixkat jartzia eta gero gisaua prestatzia. Gisaua egitteko neurrixak: okelia 200-250 gr. pertsona bakoitzeko eta patatia, 100 gr.; 8 tomate natural, 2 kalabazin, 20 bat kipula, 4-5 bandeja txanpi, kilo eta erdi zahanorixa, 4 pote pipar gorri eta pikante pixkat, barruak berotzeko. Egosten hasi aurretik 3 botilla arda eta basokada bat orujo zurixa; orjuak okelia bigundu egitten dau gogorra baldin badago. Postria mantekaua.

Eta bi lagunendako menu bat?

Gulak perretxikuekin, kokotxak almejekin, bakillau prejidua pipa-



Jose Antonio Gil

Bertso Begiz

*Gizon langile ta fededuna
horrelakua da bera,
perrexila lez saltsa denetan
baldin badauka aukera.
Umore findun pertsona zara
sukaldaria gainera,
zurekin pozik juango nintzake
poteo ta bazkaltzera*

Dinua; Ari naizela, ari naizela...

rrekin eta solomillua; gainian txanpain sorbetia. Gero kafia, purua etabar etabar.

Zergatik deitzen dotsue monagillo?

11 urte nekanetik elizan laguntzen ibili naizelako. Oin dala gutxira arte hola ibili naiz, baiña ez monagillo-monagillo moduan. Uste dot monagillo trajia ez dotela sekula jantzi, ez bada prozesiñoren baten edo.

Zein da gizonaren lagunik onena?

Hori da gaitza topatzia, lagun onak oso gutxi egoten dira.

Noiztik zare Beti Prest aisiladirako taldian?

Oin dala 16 urte sortu genduan, 14-16 urte bittarteko gaztetxue-dako. Poliki-poliki adinez baje-tzen jua gara adin hortakuak hanka egitten zoskuen eta. Aurten dekansua hartu dogu; monitore gutxi gabiz, erreleborik ez dator eta nahiko kantzauta gare.

FER S.A.

Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Argazki zaharra



Iturria: Manolo Etxabe

Lagun Maiteako Otxotea 1959an

Argazkian Lagun Maiteako Otxotea ageri da, 1959. urtean Soraluze Zineman Bonifazio Laskurain Bergarako txistulari famatuari egin zitzaion omenaldi egunean. Urte haietan herrian gizonezkoen otxote desberdinak zeuden. Ezagunena Allegrokoa zen; bertan herriko kantaririk onenek parte hartzen zuten. Lagun Maitea soziedadekoek ere izan zuten beraien otxotea, "petroleoren" kuadrila hontakoek osatzen zutena. Ezkerretik eskumara: Jose Ignacio Otxoa (*Zuzendaria*), Iñaki Basterretxea, Benazio Iñurrieta, Manolo Etxabe, Bitxor Iriondo, Gonzalo Gallastegi, Daniel Mugika eta Xanti Alberdi.

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

Aurreko alean...



Erantzuna...:
Santa Anako zubiko zutabeak.
...eta irabazlea:
Mertxe Oregi



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonia 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonia 943 75 13 99
SORALUZE

ARRANO

tabernia

Telefonia 75 24 09

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



etxera
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK



Ugaraxo

Ekaingo kobazuloa

Sastarrainera irteera



SASTARRAIN

ETA ...HELDU DA EGUNA !
SASTARRAINERA JOAN GARA
BASERRI ESKOLARA.

ZUBIAN ELKARTU GINEN GURE
TRASTE GUZTIEKIN POZIK JOATE-
KO.

AUTOBUSEAN MARRAZKI BIZI-
DUNAK IKUSTEN JOAN GINEN.

ZESTORA HELDU GINENEAN
MOTXILAK FURGONETAN SARTU
ETA OINEZ 2 KILOMETRO EGIN
GENITUEN BASERRIRA HELTZEKO.

PARAJE EDERRA : MENDIAK ,
ZELAI BERDEAK , LADAREAK , ANI-
MALIAK , ERREKATXOA ETA ...
EGURALDI ONA. !

BERTAN TALDETO ARDURAK
BANATU ZIREN ETA ONDOREN

LOGELETARA JOAN GINEN MOTXI-
LAK LAGATZERA.

HORI EGIN ETA GERO 3 TALDE-
ETAN BANATU GINEN . BATZUK
LETXUGAK UREZTATU ETA LANDA-
TU GENITUEN ETA ORTUAN ERA-
BILTZEKO TRESNAK EZAGUTU
GENITUEN.

BITARTEAN BESTE BATZUK
OILOTEGIRA JOAN GINEN OILAR ,
OILO , UNTXI ETA ANTZARREI
JATEN EMATERA ETA OILOTEGIA
GARBITZERA.

HIRUGARREN TALDEA OSA-
TZEN GENUENOK IKUILURA JOAN
GINEN ZALDI , BEHOR , BEHI ,
ARDI , AHUNTZ ETA ASTOARI
JATEN EMATERA ETA IKUILUA
GARBITZERA . ETA ONENA,
GEHIEN GUSTATU ZITZAIGUNA

,ZALDIAN IBILTZEA IZAN ZEN .

IRUNEKO LAGUNAK EGIN GENI-
TUEN ETA GAUEAN ANTZERKI ,
DANTZA ETA BERTSO BATZUK
ESKEINI ZIZKIGUTEN. ONDOREN
DENOK DANTZARA ,DISKOTEKA
GENUEN ETA . MUSIKA POLITA
BENETAN ETA MARTXOSOAK
BIHURTU GINEN . GUSTORA
SARTU GINEN SAKUETAN LO EGI-
TERA.

HURRENGO EGUNEAN OILARREN
" KIKIRIKI " ETA BATZUEN BARRE
ALGAREKIN DENOK ESNATU GINEN

BIGARREN EGUNA PASATU
ONDOREN POZIK ITZULI GINEN
ETXERA.

TXIKI-INKESTA

Zer egingo dozu udan?
Ze ekintzatan hartuko dozu parte?

GOTZON SIERRA, 9 URTE 3B

Pilpileanek antolatutako udalekuetara noia, Getarixara. Gorka Santamaria, Josu Benito eta ni juango gara, 15 egunetarako. Han beste herri batzuetako neska-mutillekin alkartuko gara. Udalekuak amaittu ostian La Pinedara juango naiz, Kataluña.



ANA PROL, 8 URTE 3B

Ez naiz Plazentzian geratuko Galiziara noia eta. Uztailak 1ian juango gara, hilabeterako. Herrixan izena Puedo da. Hango lagunekin eta lehengusiñekin jolasten dot: bizikletan ibili, patinetan, ezkutaketetan...gabian, kantzauta garenian danok ohera!



AITANA CORTÉS, 9 URTE 3B

Udaleku irekietan apuntau naiz. Goizez bakarrik izaten dira. Jolastu, margotu, eta gero eskursiñuak egitten doguz. Aurten pantanora juango gara, txalupetan ibiltzera. Udalekuak amaitzen diranian aman herrira juango naiz Lugora, Villardongo herrira.



RICKY MARTIN, 9 URTE 3B

Arratsaldetan Ludotekara juango naiz. Jolastu egitten dogu, marrazkixak egin, puzzliak, kotxe txikixak erabili, Gameboya astindu, patinetan, ezkutaketetan... eskolako lagunak juaten gara eta laugarren mailakuak bebai. Futbolian eta eskubaloian jokatzia be gustatzen jata.



IÑIGO RODRIGUEZ, 8 URTE 3B

Udaleku irekietan apuntau naiz, Uztailan 4tik 15era. Goizez bakarrik izaten dira, gero arratsaldia libre eukitzen dogu. Eskursiñuak be egitten doguz kanpora, bi egunian, baina lo egittera ez. Juan zan urtian be apuntau nitzan eta oso ondo pasau neban, primeran!




MAIALEN ALBERDI, 9 URTE 3B

Udaleku irekietan apuntau naiz. 4 taldetan banatzen gara eta jolas desberdinak egitten dittugu. Bi ostiraletan eskursiñuan juaten gara. Aurten ez dakit nora. Ludotekara be juango naiz ahal dotenian bukatzeke dakaguzen marrazkixak bukatzera.



"Ekaingo kobazuloa"

Sastarrain ondo-ondoan dagoen kobazulo honek garrantzi handia dauka Euskal Herriko artean. 12.000-15.000 bat urte dauzka eta sasoi haretako gizon-emakumeek paretetan zaldiak, hartzak eta beste animalia batzuk margotu zituzten. Bi Azpeitiarrek topatu zuten kobazulo miresgarri hau 1969an eta J.M. Barandiaran eta J. Altunak egin zituzten ikerketak bertan. Kobazulo barruan ezin daiteke sartu, baina bada Zestonan Ekaingo kobazuloaren moduko beste kobazulo berri bat, zaharraren berdina-berdina.






eKuAdorreKo eRLiebEA:

Ande zentralak Ekuador iparraldetik hegoaldera zeharkatzen dute. Hiru unitate ezberdinetan banatzen dituzte. Lehenengo kostan, bigarrena Sierran eta azkena Amazonan. Kostan irlak daude eta 1000km-ra Galápagos irletako artxipelagoa.

ak, kanelak, caobak eta zarzaparrillak daude.

Hidrografia:

Ibai gehienak Ozeano Pacificoan itsasoratzen dira. Nagusiak: Carchi, El pita, El Guayllabamba, El Pisque y el Juvones.



Rosana

EKUADOR

Maiatzaren 16an, Rosana ekuatoriarra etorri zitzaigun eskolara Ekuadorri buruz hitz egitera. Ekuadorreko paraleloak zeharkatzen duelako dauka herrialde horrek izen hori.

Hiru klima desberdin zituela esan zigun ere: kostaldekoa, mendialdekoa eta oihaneko klima. Rosana kostaldeko klimakoa zen, eta mendialdekoek "vagos" deitzen zieten esan zigun. Oihaneko klima Amazonas aldean dago.

Ondoren eskolako ordutegiari buruz hitz egin zigun. Hiru ordutegi omen daude: goizaldekoa, arratsaldekoa eta gauekoa. Ume gehienak txikitatik lana egiten hasten dira, edo bestela goiz jaikitzen dira gurasoei landan laguntzeko eta gero eskolara joateko.

Hildakoak, etxean bi egun edukitzen dituzte eta aste bete errezaizten dute.

Gehien harritu gintuena barrualdetik urrez estalitako eliza bat zegoela izan zen.

Lapur asko daudela ere esan zigun eta kontu handiz ibili behar zirela ezer ez lapurtzeko.

Norbaitek musika gaueko ordu-bietan altu ipintzen bazuen bere etxean, jendea kexatzen bazen jaramonik ez egiteko eskubidea zuen. Hango herrian asko gustatzen zaie merengea, salsa eta txatxatzaz dantzatzea.

Klima:

Herrialde honek Ecuador du izena ekuatorearen marra bertatik pasatzen delako. Ekuadorrek hainbat klima ditu: Sierrakoa eta kostakoa.

Landareria:

Kostan, zuhaitz ugariak palmerak eta epifitoak dira. Sierran, landare ugariak ceiba agabearekin eta cactaceak dira. Orientean, palmerak, tanak, cacaoak, palo-

Ekonomia:

Ekonomia aldatzen joan delako hazkunde maila igotzen joan da. Industria oso gutxi garatuta dago.

Nekazaritza:

Nekazaritza ugari da baina metodo gutxi erabiltzen da. Animaliak karga eruateko erabiltzen dute. Arrantza da gehien aurreratu dutenak.



ELIZPE

biziberritu
zure irribarra



Hortz Klinika

gure zerbitzuak:

- Odontologia orokorra
(ateratzeak, enpasteak)
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Protesiak (portzelanazko estalkiak)
- Ortodontzia (haur eta nagusiendako)
- Hortz estetika
- Zuriketak
- Zirugia
 - Implanteak
 - Endodontzia
- Ortodontzia ikustezina

- Dohaineko berrikusketak
- Finantziaketan zure neurrira
- Konpromisurik gabeko aurrekontua

Elizburu, behea
Soraluze 20590
Telf.: 943 75 25 67



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak



San ANDRES

jaixak 2005

VZTAILAK 9 ZAPATYA

23etan

- TRIKI TA KE / DJ BULL

VZTAILAK 10 DOMEKIA

12:30etan Meza

- Pelota partiduak

18:00etan Herri Kirolak

- Zezentxoak eta Poniak
- Bola Txapelketa

VZTAILAK 11 ASTELEHENA

12:30etan Meza

- Haurrentzat jolasak
- Trikitilariak **EPELDE ETA LARRAÑAGA**
- Bertsolariak Lizaso eta Egaña

19:00etan Emakumeentzat bola jokua

- Gauean Erromeria



Debabarrenako telebista

PROIEKTUAK ONDORENGO LAN TALDEA OSATZEKO LANGILEAK BEHAR DIRA:

Kudeatzailea:

- *Eskatzen da:*
 - Enpresa administrazio ikasketak.
 - Taldeak koordinatzeko eta ekipo-lana garatzeko trebetasuna.
 - Marketing ezagutza.
 - Harremanetarako gaitasuna.
- *Eskaintzen da:*
 - Egun osoko dedikazioa.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Erredaktore burua:

- *Eskatzen da:*
 - Kazetaritza ikasketak.
 - Ikus-entzunezko munduaren ezagutza.
- *Eskaintzen da:*
 - Egun osoko dedikazioa.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Tekniko-arduraduna

- *Eskatzen da:*
 - Ikus-entzunezko ikasketak.
 - Telebisten funtzionamenduaren ezagutza.
 - Kazetaritza ezagutzak.
- *Eskaintzen da:*
 - Egun osoko dedikazioa.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Teknikoa

- *Eskatzen da:*
 - Ikus-entzunezko ikasketak.
 - Telebisten funtzionamenduaren ezagutza.
 - Kazetaritza ezagutzak.
- *Eskaintzen da:*
 - Egun erdiko dedikazioa.
 - Enpresa berri bat aurrera ateratzeko aukera.

Orokorrean:

- Kotxea edukitzea derrigorrezkoa izango da lanpostu guztietan.
- Hasiera batean derrigorrezkoa ez izan arren, langile guztiek prestutasuna izan beharko dute telebistako lan teknikoan trebatzeko (kamara erabilpena, irudien editaia...)
- Euskarazko telebista izango denez, ezinbestekoa izango da euskara ondo jakitea.
- Hobetsiko da eskualdekoa izatea eta lan-esperientzia izatea.